

Ordizian, 2016ko otsailaren 25a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

1. 2015eko urriak 8ko aparteko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
2. 2015eko urriak 29ko ohiko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
3. 2015eko azaroak 12ko aparteko eta presazko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
4. 2015eko azaroak 23ko aparteko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
5. 2015eko azaroak 26ko ohiko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
6. 2015eko abenduak 17ko ohiko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
7. 2015eko abenduan eta 2016ko urtarrilako dekretuen berri ematea.
8. EH-Bilduk aurkeztutako proposamena Saharako Errepublika Demokratikoa aldarrikapeanren 40.urteurrena dela eta.
9. EH Bilduk aurkeztutako proposamena Munduko Emakume Martxa dela eta.
10. Trafiko aldaketa proposamenari buruz EH Bilduk aurkeztutako proposamena.

11. Martxoaren 8aren inguruko Adierazpen Institutuzioanala.
12. Gizarte larrialdietako laguntzei buruz EH Bilduk aurkeztutako proposamena.
13. Oteginea eta Bunztuntza auzoetan soinu-plakak jartzearen aldeko proposamena Ordiziako E.H-Bilduk aurkeztutakoa.
14. 2015ean aurrekontu krediturik gabe egindako gastuak sartzea 2016ko Aurrekontura.
15. Jarduera pribatua burutzeko Udal Arkitekto Teknikoari Bateragarritasun Baimena ematea.
16. Langile publikoei ordainsarrietan %1a igotzeari buruz 60/2016 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren berri ematea.
17. Hondakinen bilketari buruz herri kontsulta egitea: prozedura.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

- .- Suhiltzaile bolondres elkartearen desagertzea.
- .- Aurrekontuetan partehartzea
- .- Aotrentzako pertsona baten kontratazioa.
- .- Euskararen Ordenantzaren ez betetzea.
- .- Osoko bikuran aurkeztutako proposizioak aldez aurretik aztertzea.
- .- Buztuntzako pasealekua eta konpostejea.
- .- Herri Antzokia eta Oiangurengo proiektuak.
- .- 2015eko abenduak 17ko plenoaren irudiak.
- .- Larunbatean erbesteratu eta errefuixtuen alde egingo den martxara joateko gonbidapena.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 22.30etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2015eko urriak 8ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko urriak 8ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Eguren in

Jakinarazi du euskaraz dagoen aktan bera EAJ-PNV talde politikoko zinegotzi gisa azaltzen dela, eta gaur egun arte behintzat, bera EH-BILDU talde politikokoa dela. Gaztelerazko aktan ondo jasota azaltzen da.

Fernandez and.

Adierazi du bera ez dela azaltzen plenoko bertaratuen artean eta han egon zela.

Zehaztutako zuzenketak egin ondoren akta onartzeko bozketa egin da.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du aipatutako zuzenketak egin ondoren.



2.- 2015eko urriak 29ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko urriak 29ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



3.- 2015eko azaroak 12ko aparteko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko azaroak 12ko aparteko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



4.- 2015eko azaroak 23ko aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko azaroak 23ko aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



5.- 2015eko azaroak 26ko aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko azaroak 26ko aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



6.- 2015eko abenduak 17ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko abenduak 17ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Adierazi du "Galde-eskaeren" atalean Intsausti andreak galdetu zuela urtarrilerako izango ote zuten aurrekontuaren zirriborroa. Alkate jaunak baietz erantzun zion eta erantzuna ez zen aktan jaso.

Zuzenketa egin da.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du aipatutako zuzenketa egin ondoren.



7.- 2015eko abenduan eta 2016ko urtarrilako dekretuen berri ematea.

Eguren jn

Asfaltatze lanen esleipenari buruzko 15/01213 zenbakidun dekretuaz galdetu du. Adierazi du kontratu txikia den neurrian zuzenean esleitu daitekeela badakien arren, ez dutela ikusi inongo delegazioan aztertu denik.

Fernandez and

Eskatutako informazioa bidaliko diola esan dio.

Dekretuen zerrendari dagokionez, osoko bilkura jakinaren gainean dago.



8.- EH-Bilduk aurkeztutako proposizioa Saharako Errepublika Demokratikoa aldarrikapeanren 40.urteurrena dela eta.

Proposizioa

JUSTIFIKAZIOA

2016ko otsailak 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 40. urteurrena betetzen da, eta Ordiziako Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin. Beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharako Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak Saharako herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharako Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarietan.

ESKAERA

Hori dela eta, Ordiziako Udaltzaren ondokoa adierazten du:

- 1.- Berretsi egiten du Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharako Herriak legearen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharako Herriaren ordezkaritza bakar eta legitimoa, Nazio Batuen Erakundeak hala aitortua.
- 2.- Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.
- 3.- Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utzi dezatela giza eskubideen alde diharduten Saharako aktibisten aurkako jazargoa, Saharako preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 Saharako bano gehiagoren patua.
- 4.- Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxatzea Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharako giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.
- 5.- Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokoko legearen kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharako Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguen erakusgarri.

6.- Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza and

Esan du ez dituela aurrekariak gogoraraziko, baina urteurrena era alaiari ospatu behar den saharar herriak sufritzen jarraitzen duela eta ezin dela hori onartu. Seguruena, datorren urtean, osoko bilkura honek zehaztapen berberak dituen mozio bat aztertuko du berriro, eta gertakari berberak salatuko ditu.

Mozioa onartzeko zehaztu diren sei puntuak irakurri ditu hitzez hitz.

Eguren jn

Eguren jaunari esandakoak gaztelera itzultzeko eskatu dionean, Eguren jaunak erantzun dio esanez interbentzioak elebitan egiten badira bilera gehiegi luzatu daitekeela. Funtzio hori duen itzultzaile profesional bat dago osoko bilkuran. Irtenbide bat bilatu behar dela uste du baina euskaraz adierazteko eskubidea, berak duen eskubidea dela esan du.

Alkate jn

Alkate esan dio irtenbideak bilatuko direla, baina gaurkoan, osoko bilkura lehen aldiz grabatzen den egunean, gutxienez bere interbentzioen gaztelera laburpen bat egiteko eskatu dio.

Mozioaren eztabaidari dagokionean, Alkate jaunak esan du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela.

Dubreuil jn

Dubreuil jaunak ere mozioaren alde bozkatuko du.

Sukia and

Sukia andrea: bere taldeak ere mozioaren alde bozkatuko du.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposizioa onartutzat jo du.



9.- EH Bilduk aurkeztutako proposizioa Munduko Emakume Martxa dela eta.

Proposizioa

Gure elkartasuna emakume eta herri kurduarekin

2016ko urtarrilaren 8an izan zen Pakize Nayir, Fatma Uyar eta Seve Demir borrokalaria eta burkideen hileta; gobernu turkiarren segurtasun indarrek hil zituzten urtarrilaren 4an Silopin.

Krimen honek Emakumeen Mundu Martxako kideok bereziki kolpatu gaitu. 2015ean krisiek eta gatazka armatuek ez digute eragotzi mundu guztian zehar gure 4. nazioarteko ekintza antolatzea, baita gatazkak zeuden lekuetan ere, landa eremuetan, periferietan, mendietan, erresistentzian diharduten emakumeak dauden eskualdeetan... Nazioarteko ekintzaren baitan, Karabana feminista europarra Turkian kokatuta dagoen lurralde kurduan hasi zen, bertako emakumeei beren gorputz eta lurraldearekiko autonomia eta autodeterminazioa lortzeko borrokan babesa eta indarra emate aldera. Halaber, emakumeen erresistentziak sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren aurka eraikitako alternatibak ezagutaraztea zen beste helburua.

2015eko martxoaren 6 eta 7an Turkia eta Siria arteko mugaren bi aldetako eskualdeko milaka emakume Nusaybinen bildu ziren (mugak banatutako hirian), eztabaida, kultur ekitaldi eta manifestazioek osatutako foro batean. Jendarte berri baten eraikuntzan eginkizun garrantzitsua duten emakumeek tokiko komunitateen autodefentsan garatzen dituzten esperientzien berri eman zieten elkarri.

Zoritxarrez, azken aldion turkiar gobernuaren eta herri kurduaren arteko gatazka berriro lehertu da, 2015eko ekainean izan ziren hauteskunde turkiarren ostean bake-elkarrizketek porrot egin baituzten. Gatazkaren fase berri honen ondorioa ehundaka zibilen heriotza (gehienbat emakume eta haurrak), ehundaka zauritu eta milaka espetxeratu izan da. Udal-batzar herritar kurduak erabaki dute autodefentsa dela lurralde kurduko hirietan estatuko polizia darabilen bortizkeriari aurre egiteko modua. Herritar gobernuetako 17 alkate espetxeratu dituzte, baita Sara Kaya ere, zeinak Nusaybinen hartu gintuen nazioarteko 4. ekintza zela eta.

Marche mondiale des femmes World March of Women Marcha mundial de las mujeres Autogobernua aldarrikatu duten hiriei eraso egiten diete; etxeratze agindua ezarri zaie, baita argindarra, ura eta komunikazioak eten ere. Kanean dabilen edonor, haurra, adinekoa, haurdun edo gaixorik dagoen emakumea dela ere, frankotiratzailleek hil egiten dute. Zauriren bat jasoz gero, pertsonak ezin dute medikuarengana jo. Jendeak ezin ditu bere hildakoak ehortzi. Etxeratze aginduak herritarrak etxean bahituta mantentzen ditu, jatekorik ere ez dutela; honek osasun egoera larriagotzen du. Hartara, berezko abortoen kopurua gehitu egin da. Nusaybinen etxeratze agindua zazpi aldiz ezarri dute; azkenak, abenduaren 14an ezarri zenak, indarrean dirau oraindik.

Azkenik, indar polizialek hiru emakume ekintzaile kurdu hil zituzten joan den urtarrilaren 4an Silopin. Euretako bat, Seve Demirr, Emakumeen Mundu Martxaren 4. nazioarteko ekintza hasteko ekitaldien koordinatzaile izan zen.

Ekintza:

Hilketa politiko hau salatu eta dei egiten diegu koordinakunde nazionaleri turkiar enbaxaden aurrean protesta ekitaldiak egin ditzaten eta gutunak bidal diezaizkieten hiru emakume ekintzaile kurduen hilketa gaitzesteko eta honakoak exijitzeko:

- Inpunitatearen amaiera eta krimenaren ardura dutenek justiziaren aurrean erantzun dezaten.
- Ez dezatela ekintzaile politiko, giza-eskubideen defendatzaile eta kazetari gehiago hil.
- Hiri kurduetan amai dadila etxeratze agindua.
- Indar militar eta paramilitarrak erretira daitezela hiri kurduetatik.
- Su-etena eman dadila eta bake-elkarrizketak berriro hasi.
- Pertsonak, baina batez ere emakumeek, pairatzen dituzten abusu, irain eta tratu txarrak amai daitezela.

Martxan jarraituko dugu guztiok libre izan arte!

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ezenarro jn:

Adierazi du Turkiaren mende dagoen Kurdistanen egindako ekitaldi batean Emakumeen Mundu Martxa zela eta hiru emakume erail zituztela, eta hori salatu nahi duela mozio honek.

Mozioaren puntu guztiak zerrendatu ditu.

Esan du ez duela gaztelerara itzuliko euskaraz esandako guztia baina laburpen bat egingo duela.

Alkate jn

Adierazi du edozein pertsonaren erailketa salatzen eta gaitzesten duela eta nola ez, oraingo honetan ere bai.

Dubreuil jn

Mozioaren alde bozkatuko duela esan du.

Sukia and

Bere taldeak ere mozioaren alde bozkatuko du.


Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposizioa onartutzat jo du.



10.- Trafiko aldaketa proposamenari buruz EH Bilduk aurkeztutako proposizioa.

Proposizioa

JUSTIFIKAZIOA

Hainbatetan galdetu zaio udal gobernuari trafiko aldaketarako agindurik eman ote duen, eta hirutan erantzun du ezetz. Lanerako mahai teknio bat eratu dela, baina ez dela erabakirik hartu esan zaigo. Alabaina, Gai Arrunten Batzordean aurkezten diren aktetan badirudi gaia lantzen ari dela, gainerako alderdiei jakinarazpenik egin gabe.

Azkeneko osoko bilkuran gaia eztabaidatu zen, eta aipatu genuen lanerako mahai horretan izan nahi genuela. Uste dugu, halako erabaki bat ezin dela alkatetza dekretu bidez hartu.

ESKAERA

Ordiziako Udalbatzari eskatzen zaio udal gobernuari eskatu diezaiola:

1.- Trafikoaren balizko aldaketarako hausnarketa eta dagokion prozesuan, gainerako gaiekin bezala joka dezala, eta aldarrikatzen den gardentasunaren baitan, udalbatza osatzen dugun talde guztiak ez ezik, herritarrak ere gonbidatu ditzala hausnarketa horretan parte hartzera.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ezenarrojn

Berrito galdetu du ea arlo honetan aldaketarik egin den ala ez. Erantzun diote esanez gaia aztertzeko Lan-Mahai bat sortu behar zela.

Talde politikoko kide gisa Mahai horretan egoteko esakera egin du, gainera, parte hartu nahi duten herritarrei ere bertan egoteko aukera eman behar zaiela uste du.

“Hiri Hezitzaile” kontzeptua aipatu du.

Alkate jn

Erantzun dio esanez udal teknikariak dagoeneko Mahai Tekniko batean lanean ari direla eta teknikariek proposamenak prestatu ondoren partaidetza prozesu bat martxan jarriko dela eta herritarren ekarpen eta iradokizunak kontuan izango direla.

Alkateak jarraitu du esanez trafikoari buruzko eztabaida ez dela bat-batekoa izan, baizik eta herritarren kezka ondorio izan dela, eta hauteskunde programan gaia aztertzeko konpromisoa hartu zuen.

Bere ustez mozioa bozkatzeak ez du zentzurik.

Sukia and

Alkate jaunak proposatutako partaidetza prozesuaren alde azaldu da Sukia andrea.

Dubreuil jn

Esan du berak ere Alkatearen proposamenarekin bat egiten duela eta horrekin batera irisgarritasunaren gaiak ez duela EH-BILDU kezkatu behar.

Ezenarro jn

Ezenarro jaunak esan du irisgarritasunari buruz ari denean oinezkoen segurtasunari lehentasuna eman behar zaiola esan nahi duela.

Horrez gain esan du ez duela mozioa baztertuko, bere ustez mozioa onartzea eta Mahaia sortzeko proposamenak ez direlako inola ere bateraezinak.

Alkate jn

Esan du Zerbitzuetako eta Hiri Mantentze-lanetarako Saila oinezkoen segurtasuna hobetzeko aukera desberdinak aztertzen ari dela.

Insausti and

Adierazi du gaia behin baino gehiagotan atera dela Gai Arrunten Batzordean eta osoko bilkuran bertan.

Alkate jaunak

Erantzun dio esanez Gobernu Batzordeak Mahai hori sortzeko konpromisoa hartu duela eta mahaian herritarrek parte hartzeko erraztasunak emateko konpromisoa. Eguren jauna ez zen Gobernu Batzordeko bilera horretara joan.

Sukia and.

Esan du, hain zuzen ere, gaia Gobernu Batzordeko bilera batean adostu zela.

Eguren in

Esan du trafikoa herritar guztien ahotan dagoela eta mozio honez gain gai askoren inguruko informazioa eskatuko dutela azkeneko 5 edo 6 hilabeteetan ukatu egin zaielako informazio hori.

Eta orain mozioarekin atzera egiteko eskatzen zaie? Ez du ulertzen. Ez dute atzera egingo.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposizioa onartutzat jo du.



11.- Martxoaren 8aren inguruko Adierazpen Institutioanala.

M8: ORDIZIAKO UDALEKO ADIERAZPENA (2016)

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ate joka dugu. EAeko Berdintasun Legea (4/2005, otsailaren 18koa) indarrean jarri zenetik 11 urte igaro dira jada. Lege horren harira hasi ziren ibilian Ordiziako Berdintasun planak; lehendabizikoa (2009-2012) eta bigarrena (2013-2016).

Ezbairik gabe, lehen berdintasun politikak abian jarri zirenetik aurrera pausu handiak eman dira berdintasunaren esparruan, nahiz eta bidea gorabeheratsu samarra izan.

Ikuspuntu formaletik, emakumeen eta gizonen berdintasunetik gertuago gaude. Emakumeek lege eskubideak erdietsi dituzte, euren ugalkortasunaren kontrola hartu dute, gero eta gehiago dira urtez urte goi mailako ikasketetan dihardutenak, garai batean pentsa ezinak ziren lanbide eta postuetara heldu dira, feminismoari eta emakumeen taldeei esker, patriarkatua ezbaian dago... Nolanahi ere, lan handia dago egiteko oraindik ere, izan ere, patriarkatuaren ondorio zuzena diren bortizkeria sexistak, bazterketak eta emakumeen ekarpenen bisibilizazio ezak bizi-bizirik diraute oraindik ere.

Parekidetasun faltarekin amaitzeko benetako interesa eta borondate politikoa behar dira, baina garrantzi gehiago ematen zaie beste gai batzuei, gure amak, bikotekideak bizilagunak, ilobak eta gure herriko emakumeek oro har bizi duten berdintasun faltari baino. Egoera aldatzeko giltza generoen arabera eraikitako giza-espazio hierarkizatua deseraikitzea da. Horretarako ezinbestekoa da jendartean balore aldaketa bultzatzea baina ez soilik emakumezkoetan baita gizonezkoetan ere, azken hauek dituzten pribilegioei (abantailei, hobariei) uko egin eta dagokien ardurak euren esku har ditzaten. Hala ere, ikerketek azaleratzen dute bide luzea dugula egiteko.

Euskal Herrian biztanleriaren erdia baino gehiago dira emakume, gero eta emakumezko gehiago ikus daiteke jendarteko alor gehienetan (politikagintzan, kulturean, lan arloan, sindikatuetan...). Hala eta guztiz ere, botere eta erabaki guneetan gutxiengoa dira: kristalezko sabaiaz ari gara.

Balio ekonomiko eta politikoko alorretan ordezkaritza gutxi dute emakumeek. Lan munduan, oso feminizatuta dauden alorretan dihardute, prekarietate handiko eta soldata eskaseko lan-hilobietan, segregazio horizontala eta bertikala eguneroko kontua dira. Ildo horretatik, arreta berezia eskatzen duten sektoreak badira: emakume baserritarrak, etxe eta zaintza lanetan dihardutenak eta sexu-langileak, kasu.

Biziraute eta zaintza lanen %80 emakumeen esku dago. Lan horiek, bizitzaren iraupenerako, pertsonen ongizaterako eta jendartearen antolaketarako funtsezkoak diren arren, kasu askotan musu truk egiten dira edo lan baldintza oso eskasetan. Gainera, prestigiorik gabeko zereginak dira, askok egin nahi ez dituztenak, alegia. Feminismoak lehentasunezko zatitza jotzen du gai hau eta egoera iraultzeko bultzeta eta bizitzaren zaintza ekonomiaren eta giza antolaketaren erdian kokatzea aldarrikatzen du. Zoritxarrez, gaiak ez du behar besteko tokirik erakunde politikoaren agendatan.

Indarkeria matxista emakumeen eskubideen urraketa larrienetakoa da, eta feminismoari esker, arazo pribatua izatetik arazo publiko eta politikoa izatera igora da. Gainera, fenomeno lazgarri horri aurrea hartzeko eta kaltetuen arretarako hamaika baliabide jarri dira martxan. Edozein kasutan, datuek agerian uzten dute gaitz horrek indar handia duela gure jendartearen oraindik ere, eta herri-aginteei ardura zuzena dute horretan.

Emakumeen sexualitatea molde estuetara mugatzen da eta hainbat genero mandatu eta afektibitate eta sexu-portaerarako jarraibide jakin batzuekin markatuta dago. Sexu heziketa heterosexualitateara, koitorea eta nahigabeko haurdunaldiak saihestera zuzenduta dago, kontrazepzio neurriak gehien bat emakumei zuzenduta daude, abortua ez da erabat askea eta heterosexualitate kanpoko joerak, lesbianismoak esaterako, ikusteaz inoiz segitzen dute.

Genero-estereotipoek bizi-bizirik dira hedabideetan, irakaskuntzan eta oro har gizartean. Edertasun femeninoa gurtzen da oraindik ere. Gizonezkoen gustuko izateko ederra eta gaztea izatea, kontzientzia kolektiboan sakon barneratutako nahia da. Gurtza unibertsala da, emakumeek betebeharreko manamendu soziala eta horrek baldintzatu egiten du emakumeek euren buruez eta munduan duten lekuaz daukaten irudia.

Feminismoak eta emakume taldeek azken hamarkadetan barrena berdintasuna lortze aldera egindako lan mardulak ez du inolako aitortzerik izan. Oro har emakumeek gure herriaren historiari egindako ekarpenak ez dira biltzen ez historia liburuetan ez ikastetxeetako kurrikulumetan. Beste horrenbeste gertatzen da emakumeek herri honetako auzi politikoa konpontzeko eta gure herriaren baretzean egindako ekarpen politarekin.

Hau guztia dela eta, ezinbestekoa da parekidetasun ezaren aurrean ezikusiarrena egiteari uztea, eta herri-aginteei aparteko lana egitea emakumeen eskubideak bermatu eta horiek jasaten duten bazterkeriarekin amaitzeko.

Zein eskubide dituzte emakumeek?

- Emakumeen aniztasuna (adina, jatorria, arraza, aniztasun funtzionala...) errespetatua izan dadin eta aniztasun hori kudeatzeko kolektiboki eta pertsonalki egiten duten lana aintzat hartuta izan dadin
- Euren bizitza egitasmoa askatasunean, gora beherarik gabe eta aukera berdintasunean gauzatzeko, egitasmo hori familiaren eskubideen mende utzi gabe.
- Jendarteko esparru guztietan eta erabakitzeke guneetan aktiboki parte hartzeko eta euren iritziak eta proposamenak aintzat hartuta izan daitezen
- Jakintzaren eta kulturaren edozein diziplinako objektu eta subjektu izateko
- Duintasunez bizitzeko, beti ere euren bizitzako aro bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta eta erabat errespetatuta
- Mota guztietako bortizkeriarik gabeko bizitza bizi ahal izateko: sexu erasoak, behartutako prostituzioa, bikotekideak eragindako tratu txarrak, sexu jazarpena lan esparruan, lesbianofobia, transfobia eta abar
- Norberaren denbora izateko, eta hori lanerako, aisialdirako eta nahi duten erara erabiltzeko
- Lana eta amatasuna uztartzeko (bateratzeko) orotariko baliabideak izateko
- Nahi dituzten harreman afektiboak sortu eta garatzeko, beti ere eredu heterosexista gaindituta
- Euren sexualitatea askatasunez bizitzeko, euren nortasun sexuala edozein izanda ere
- Euren gorputzaren inguruan askatasunez erabakitzeke eta aukeratzeko
- Zainduak izateko, eta emakume izateagatik etxeko eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko
- Lan munduan aukera berdintasunean sartu eta parte hartzeko, orientazioa eta formazioa jasotzeko eta lan duina edukitzeko
- Euren beharrekin bat datorren osasun zerbitzu integrala jasotzeko, ugaltze eta sexu eskubideekin lotutako zerbitzuak barne
- Feminismoaren baloreak eta emakumeen ekarpenak bere egiten dituen hezkuntza eremuan hezteko
- Laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko, horiek familia unitatearen mende egon gabe
- Feminismoaren baloreak (elkartasuna, askatasuna, berdintasuna, bakea eta justizia, besteak beste) ardatz dituen kultur eredia ezagutu, sortu, garatu eta gizarteratzeko
- Emakumeak ikusezin bilakatzen ez dituen edo baztertzen ez dituen hizkuntza erabili eta garatzeko
- Emakumeek historian barrena egindako ekarpenak aintzat hartu eta ezagutarazteko
- Euren herri eta hirietan seguru sentitzeko eta hirigintza antolaketak euren beharrak kontuan hartu eta bermatu dezan, tartean etxebizitza edukitzearena

Martxoaren 8aren atarian gauden honetan, adierazpen honen bitartez, eskubide horiek errespetatu, babestu eta bermatzeko eta genero-ezberdintasunak desagertze aldera lan sakona egiteko konpromiso tinkoa hartzen du Ordiziako Udalak

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Mozioak Eusko Jaurlaritzak onartutako Emakumeen Eguneko edo Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala onartzea edo harekin bat egitea proposatzen duela esan du Alkate jaunak.

Dubreuil jn

Adierazi du Berdintasun Sailarekin aztertu eta kontrastatu dela mozioa.

Giza eskubideak bermatzeko adierazpen bat da eta zehazki emakumeen eskubide horiek askotan urratzen dituzte. Emakumeen eskubideen alde zuzenbidez hobeto gobernatzen saiatu behar dugu.

Eguren jn

Adierazi du bere taldeak mozio bat aurkeztu zuela baina Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean alde batera utzi zutela adierazpen ofizialarekin bat egiteko. Genero berdintasunaren esparruak duen garrantzia berretsi du. Mozioaren alde egingo dute.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



12.- Gizarte larrialdietako laguntzei buruz EH Bilduk aurkeztutako proposizioa.

Proposizioa

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren ISko Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen 4/2011 Dekretuak aipatuta laguntzen kudeaketa eta prestazioa arautu eta finantzaziorako eskumenak ezartzen ditu.

31. artikulua (Finantziazioa eta Transferentziak VI. Kapituluaren barruan), Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan GLL-etarako zenbatekoak finantzatzeko behar beste baliabide ekonomiko gorde beharko direla urtero dio. Urteetako krisi denboraldi honetan, atal honetara bideratu behar diren baliabideak Eusko Jaurlaritzak urtero finkatzen dituenak baino askoz handiagoak direla argi geratu da. Ordiziako Udalak, beste hainbat Udalek bezala, beharrak dituzten hiritar eta familia oro bere estaldura sozialetik kanpo geratu ez daitezen helburuarekin, GLL-ak tramitzeko aurrekontu estra bat bideratzen du azken urteetan.

32.2 artikuluan aipatzen den bezala, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuetako eskumena duen Sailak Udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko du. 2015 urtean, kontzeptu honetan Ordiziako biztanleriaren beharren eskaerak asetzeko, Eusko Jaurlaritzatik 75.743C finkatu dira. Baina beharrak askoz ere gehiago izan dira eta 2015. urte bukaeran gastu totala 140.888,28€koa izan da. Beraz, 2015. urtean, Ordiziako Udalak herriko GLL behar osoaren % 47a bere gain hartu du.

Gainera, 32.3 artikuluan zehazten den bezala, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuetako eskumena duen Sailak aurreikusitako baliabideak banatzeko irizpideak berrikusiko ditu aurrekontu-ekitaldiaren barruan, horrela, behar izanez gero, udal bakoitzari esleitutako kredituak egokitu ahal izango ditu. Eta are zehatzago oraindik, 32.3.b artikulua dioen bezala, banaketa-irizpideak berriz aztertu behar direla uste bada, eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Sailak beste banaketa-irizpide batzuk finkatu ahal izango ditu, Gizarteratze Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeak gaia aztertu ondoren eta ondorioz, udal bakoitzak eskura dituen kopuruak berriro antolatu ahal izango ditu. Oso premiazkoa ikusten dugu beraz, Eusko Jaurlaritzak banaketa-irizpideak eguneratzea ematen ari den urteetako estaidura defizita eta gero.

ESKAERA

Ordiziako Udaibatzaari eskatzen zaio udal gobernuari eskatu diezaiola:

1. Eusko Jaurlaritzan Ordiziako GLL-en behar osoaren estaldurara iristeko behar diren 65,145,29.-ren ordainketa eskatzea.
2. Urtarriaren ISko Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen 4/2011 Dekretuaren IV Kapituluaren (Finantziazioa eta Transferentziak) 32. Artikulua aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzari Udalei kontzeptu honetan baliabideak banatzeko irizpideak premiaz berrikusi eta egokitzeko eskatzea, Udalen behar errealetera doitzeko.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza and

Esan du mozio honen bitartez Eusko Jaurlaritzari 2016. urterako GLLren finantziazioa hobetzeko exijitzen zaiola, 2015. urtean Udalak finantziazioaren %47ari aurre egin behar izan baitio.

Jakinarazi du atzo prentsan Eusko Jaurlaritzak Ordiziari emango dion zenbatekoa argitaratu zela eta iaz baino mila eta piko euro gutxiago izango dela. Hobetu beharrean, okerrera goaz.

Horrez gain, laguntzen banaketa irizpideak berraztertze eskaera egiten da.

Alkate jn

Erantzun dio esanez prentsan berria irakurri aurretik jakinarazi ziotela arazoa Jaurlaritzari, eta jakina, mozioaren alde daude baina aldi berean gaiaren inguruko hausnarketa sakona egin behar dela uste du.

Erakunde nagusiak kontuan izan behar direla uste du hauek arautzen dutelako gaia eta sistema ez oztopatzeko erakundeen artean ados jartzea espero du.

Bestalde, esan die beraien azken lau urteotako agintaldian ez dutela arazoari buruzko moziarik aurkeztu. 2011, 2012, 2013 eta 2014ko aurrekontuetako datuak eman ditu eta argitu du 2014 eta 2015 urteetan ere Udalak GLL finantzatu behar izan duela bere baliabideekin eta ez zela moziarik aurkeztu. Ezta Zaharren Egoitzaren gaiarekin ere, urtero erakunde honi 350.000 €ko ekarpena egiten diogula kontuan izanda.

Bere ustez Ongizate Sailak ematen dituen diru-laguntza guztien azterketa sakon bat egitea egokia litzateke eta Ongizateko Aholku Batzordea gaia aztertzen ari da plan estrategiko bat egiteko.

Maiza and

Erantzun du ez dakiela Alkateak zehaztutako datuak zuzenak diren ala ez baina berak baieztatu dezakeena zera dela: Ongizate Sailera joan diren eta txosten teknikoen arabera baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak jaso dituztela laguntzak.

Eguren jn

Adierazi du moziarik aurkeztu ez duten arren, gestio-lan batzuk burutu dituztela, adibidez, Zaharren Egoitzako gaiarekin. Poztu egingo da gaur egungo gobernuak egoitzaren gaia ixtea lortzen badu, baina gogorarazi du beraien alderdiak murrizketak egin dituela hezkuntzan eta laguntza sozialetan.

Sukia and.

Uste du eztabaida gehiegi luzatzen ari dela eta talde guztiak ados badaude mozioaren edukiarekin, ba, aurrera egiteko.

Dubreuil jn

Esan du interbentzio-txandak arautu egin behar liratekeela, batzuetan interbentzio hauek monopolizatu egiten direlako.

Esan du egia dela zenbait zerbitzutan murrizketak egin direla, eta horren ondorioa da udalek gainkarga jasan behar izatea. Gaiak hausnarketa egitea eskatzen du eta eztabaidatu egin behar da.

Aurkeztutako mozioan hirugarren puntu bat sartzeko eskatu du, EUDEL premiatzeko laguntza emateko irizpide berriak adostu ditzan Eusko Jaurlaritzarekin.

Enmendakinaren Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, onartutako proposamena honela jasota geratu da:

1. Eusko Jaurlaritzan Ordiziako GLL-en behar osoaren estaldurara iristeko behar diren 65,145,29.-ren ordainketa eskatzea.

2. Urtarriaren ISko Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen 4/2011 Dekretuaren IV Kapitulua (Finantziak eta Transferentziak) 32. Artikulua aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzari Udalei kontzeptu honetan baliabideak banatzeko irizpideak premiaz berrikusi eta egokitzeko eskatzea, Udalen behar errealak errealizatzeko.

3.- Udal honek EUDEL eta Eusko Jaurlaritzari ondorengoa eskatzen dio: Udalek GLL barruan dauden kasu guztiak artatzeko nahikotasun ekonomikoa lortu ahal izateko formula finkatzea eta akordio markoa lortzeko negoziaketa eta elkarriketa bideratzea.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



13.- Otegienea eta Buztuntza auzoetan soinu-plakak jartzearen aldeko proposizioa Ordiziako E.H-Bilduk aurkeztutakoa.

Proposizioa

ZIOA:

Otegienea eta Buztuntza auzoetan, NI errepidearen ondoan, soinu-plakak jartzearen aldeko aldarria historikoa da. Bertako bizilagunWk urteak daramatzate eskaera hori egiten, 2009an, GFAk NI osoan zehar soinu-plakak jarriko zituela agindu zuen:

"2003ko azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legeko 14. artikulua aurreikusitakoari Jarraituz, urteko sei milioi ibilgailuko zirkulazioa gainditzen duten Gipuzkoako bide ardatz nagusien zarataren mapa estrategikoa onartu ziren 2008ko azaroaren 3ko 362-C/2008 Foru Aginduaren bidez (azaroaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 224 zk.).

Hortaz, zarataren mapa estrategiko horietan definitutako lurralde eremuak direla-eta, hala ezartzen baitule, aide batetik, 2003ko azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legeak, hirugarren kapituluan, zarata saihestu eta murrizteari buruzkoan, eta beste aldetik, 2005eko abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuak, ingurumen zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez 2003ko azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legea garatzen duenak, horregatik, Bide Azpiegituretako Departamentuak, berezko eskumen eremuaren ondorioz sortutako aukerak kontuan hartuz, urteko sei milioi ibilgailuko zirkulazioa gainditzen duten bide ardatz nagusien Zarataren kontrako Jarduketa Plana prestatu du, zehazki, honako bide hauena: N-I "Madril - Irun" errepide guztia.

Agindu hori 2009koa bada ere, gaur egun Ordizian, Otegienea eta Buztuntza parean, ez dago soinu-plaka bat bera ere. Aurreko legegintzaldian -iazko otsailean-, EH Bilduk zuzentzen zuen GFAk proiektua idatzia zuen. Bertan soinu-plakarik onenak zeintzuk lirakeke zehazten zuen: Otegienean metakrilatoak eta Buztuntza parean soinu-plaka begetala. Bi hauen kostu osoa, BEZa barne, ia miloi erdikoa da, 499.631,30€ koa, hain zuzen ere. Aurreko legegintzaldian GFAk egindako kronogramari jarraituz gero, aurten obra hori burutu behar zen baina, zoritzarrez, egun PNV-PSEk zuzentzen duten Foru Aldundiak obra horri lehentasuna kentzea erabaki du.

EH Bildu batzarkide taldeak GFARI egindako galdera bati erantzunez, Bide-azpiegituretako Diputatu andereak, Aintzane Oiarbide jeltzaleak, 2015ko urrian, "ez dago hasiera emateko inolako datarik aurreikusita" jakitera eman zigun.

GFAko 2016ko aurrekontuak hobetzeko asmoz, EH Bildu batzarkide taldeak soinu-plakak jartzeko 900.000€ko zuzenketa bat sartu zuen baina PNVk eta PSEk atzera bota zuten, behar-beharrezkoa den obra honen eraikuntza "sine die" luzatuz.

Ordiziako bizilagun askoren egoera latz hau denboran mugagabe luzatu ezin delakoan gaudenez, Ordiziako EH Bildu taldeak hurrengo eskaera egin nahi du:

ESKAERA:

Ordiziako Udal Batzak GFARI Otegienea eta Buztuntzako soinu-plakaren proiektua berrartu dezala eta 2016 urtearen zehar gauzatu dezala.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Eguren in

Gogorarazi du aurreko legealdian zaraten mapa bat prestatu zela eta Otegienea puntu gatazkatsuenetarikotzat jo zela eta egin beharreko inbertsioa zenbatzea lortu zela. Bere taldeak, mozioaren bidez, 2016an Foru Aldundiari inbertsioa finantzatzeko exijitu nahi dio.

Alkate jn

Esan du gaia aspaldikoa dela. Bere legealdian lortu zen Lasarte eta Villabonako udalerrien ostean (premia handiena zuten puntuak) Ordizia izatea plaka akustikoak ipintzeko hurrengo udalerria. Gainera, arazoa jasaten zuten San Bartolome auzoko bizilagun batzuentzat ere lortu ziren plakak. Ondoren, krisia iritsi zen eta finantziazioa eten egin zen baina aurreko legealdian ere ez zen gai honi buruzko moziorik aurkeztu.

Jakina, Foru Aldundiari arazoa konpontzeko eskaera egitearen alde daude, eta batez ere Otegienea eta Buztuntzako zenbait puntu beltzetan.

Eguren jn

Esan du egia dela beraien legealdian ez zutela lortu jarduerarako finantziatorik baina puntu beltz horiek baloratzeko proiektu bat lortu zuten. Berriro poztuko da gobernu berriak behar den finantziazioa lortzen badu. Alkate jaunari galdetu dio ea norekin egon den.

Alkate jn

Alkate jn erantzun dio.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



14.- 2015ean aurrekontu krediturik gabe egindako gastuak sartzea 2016ko Aurrekontura.

Proposamena

2015.urtean zehar aurrekontu gordailurik gabeko gastu batzuk egin ziren partida batzuetan.

2015 urtea itxi baino lehen, gainezkatze hauek konpontzera jo genuen, Kontabilitatek 44.954,74.-€tik gorako fakturak kenduz.

Gastu hauek 2016ko Aurrekontuei eransteko, hiru aukera daude:

- 1.- 2016ko partidetako kredituak handitzea erantsi behar diren gastuen neurri berean.
- 2.- 2015eko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetako arduradueni eskatzea 2016rako aurreikusitako gastuak baliogabetzako 2015ko gastuak sartzen diren neurrian.
- 3.- Bi aukerak bateratzea burututako gastuaren boluntarioritza mailaren arabera.

Gaia onartzea peremiazkoa da, fakturak ordaindu gabe baitaude.

Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauek 34.artikuluak ezarritakoaren arabera.

Gaia onartzea premiazkoa da, fakturak ordaindu gabe baitaude.

Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.artikuluaren ezarritakoaren arabera, 2016ko otsailaren 17ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordean gaia aztertu eta gero, ondorengo aurkezten da Osoko Bilkuran onartzeko:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- 2015 urteko gastuak 2016 urteko Aurrekontuetan sartzea onartzea, guztira 44.954,74.-€

2.- 2016ko Aurrekontuen kreditu gehigarrien 1.espedientea onartzea, 44.954,74.-€koa, gastu hauen gehikuntza finantzatzeko.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontuhartzaileak

Argitu du proposamenarekin bi gauza onartuko liratekeela:

- 1) Krediturik ez duten 2015eko gastuak 2016ko Aurrekontuetara eranstea onartzea.
- 2) Horiek finantzatzeko kreditu gehigarrien 1. espedientea onartzea.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



15.- Jarduera pribatua burutzeko Udal Arkitekto Teknikoari Bateragarritasun Baimena ematea.

Proposamena

2015eko azaroaren 18an JON ESQUISABEL DEL BOSQUE funtzionarioak, udal arkitekto teknikoak, bere kontura jarduera pribatua burutzeko bateragarritasuna aitortzeko eskaera egin zuen.

2015eko abenduaren 30eko txosten teknikoak ikusita eta Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 legearen 11. artikulutik 15. era ezartzen dena kontuan izanda.

2016.02.17ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIOA

JON ESQUISABEL DEL BOSQUE udal arkitekto teknikoari bere kontura jarduera pribatua burutzeko bateragarritasuna aitortzea, bete beharreko araudian ezarritako baldintzak betetzeko baldintzarekin eta jarduera hori burutzean Udaleko bere lanpostuak dituen funtzioak betetzeko betekizunari kalterik ez egiteko baldintzarekin.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



16.- Langile publikoei ordainsarrietan %1a igotzeari buruz 60/2016 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren berri ematea.

60/2016 ZK. DEKRETOA

HONAKOA IKUSIRIK:

- EUDELeK bidalitako 2015eko abenduaren 10eko zirkularra, Tokiko Administrazioeko enplegatu publikoen ordainsarien igoyerari buruz udalek eta gainerako toki erakundeek hartu beharreko akordio proposamenari buruzkoa.
- Zirkular honek ordainsariei dagozkien zenbait neurri hartzea gomendatzen du, Udalhitz Akordio Arautzailearen negoziazio kolektiborako sindikatu-zentralekin akordioak lortzen diren neurrian.
- 2016 urterako Estatuko Aurrekontuen Legeak aurreikusten du sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarrietan eguneko 1 arteko igoera aplikatzea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikulua ezartzen badu ere funtzionarioen ordainsari osagarriak onartzea eta finkatzea osoko bilkurari dagokiola, 21 f) artikulua Alkateari esleitzen dio gastuen xedapena bere eskumenen muga barruan, aurrekontu barnean badago eta ez badu baliabide arrunten eguneko 10a gainditzen.
- Ordainsarien igoera hau urtariletik ez aplikatzeak zenbait zailtasun tekniko ekarriko lituzke.
- Sindikatu-ordezkaritzari informazioa eman zaio eta hark esandakoa ere entzun da.

ONTZAT HARTZEN DUT:

- 2015eko abenduaren 31ean indarrean dauden kopuruak aintzat hartuta Udaleko funtzionarioen ordainsarien ehuneko 1a igotzeko agindua ematea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, alderatutako bi aldiatarako homogeneotasunaren arabera.
- Igoera hau 2016ko ekitaldiko Lanpostu Zerrendan islatuko da, eta Ebazpen honen berri ematea ondorengo osoko bilkuran.
- Horrekin batera Herri Antzokia Fundazioaren zerbitzuko lan-kontratadun langileei ere ehuneko 1eko ordainsari-igoera aplikatzeko agindua ematea.
- Dekretu honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Jose Miguel Santamaria Ezeiza alkateak agindu eta izenpetu du Ordizian, 2016ko otsailaren 1ean neuk Ordiziako ordezeko Idazkariak ziurtatu dut.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Jakinarazi du Estatuko Aurrekontu Orokorrek enplegatu publikoei ordainsarien ehuneko 1era arteko igoera aplikatzea baimentzen dutela 2016. urterako. Hori dela eta, ordainsarien igoera hori onartu da eta Alkatetza dekretu bidez onartu da teknikoki lana errazteko. Horregatik osoko bilkurari honen berri ematen zaio.

Dubreuil jn

Dubreuil jaunak galdetu du ea Herri Antzokian eta San Jose egoitzan ere ordainsariak ere igo diren. Alkate jaunak erantzun dio esanez erakunde hauetan ere egingo dela.

Sukia and,

Adierazi du egokia izan daitekeela Pedro Irastorza jaunari, Langileen Batzordeko ordezkariari, hitza ematea, bertan dagoela aprobetxatuz.

Irastorza jn

Irastorza jaunak esan du 2010. urtean enplegatuen ordainsarien %5a jaitsi zela, eta ondoren, 2015. urtera arte, ordainsari hauek izoztuta egon dira, pasa den urtean %4ko igoera onartu zen arte. Hala ere, esan du, erosteko ahalmenaren %4,6 geratzen dela berreskuratzeko.

Jakinarazi du, EUDELeko Negoziazio Mahaian zenbait premisa adosteko eskaera egin zutela eta ez zirela kontuan izan. Ez daki oso ondo norekin ari den negoziatzen EUDEL.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez ez dela oso zuzena 2010. urtean %5eko murrizketa izan zela esatea. Murrizketak %4,86tik %0,89ra artekoak izan ziren eta aurreko legegaldian onartutako ordainsarien igoera ez da %4koa izan, baizik eta %4 lineala.

Negoziatzen jarraitu behar dugu.

Irastorza jn

Esan du mahai bat sortu behar dela.

Dubreuil jn

Mahai horretan egotea eskatzen du.

Eguren jn

Esan du legeak soldata igoerak debekatzen edo mugatzen baditu ere irtenbideak bilatu behar direla funtzionarioen soldatetan erosteko ahalmenaren galera arintzeko.

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.



17.- Hondakinen bilketari buruz herri kontsulta egitea: prozedura.

Alkate jn.

Esan du, kontsulta sustatuta, ordiziar bakoitzak bere ustez hoberena den bilketa sistema hautatuko duela.

Kontsulta, Hondakinen Mahaian burutu den partaidetza prozesu baten emaitza da. Mahai horretan alderdi politikoek, teknikariek, elkarteek eta herritar norbanakoek hartu dute parte. Mahaiak ondorengoak zehaztu ditu: kontsultaren prozedura, eguna, egin beharreko galdera eta egin beharreko komunikazio kanpaina. Ia hilabete eta erdiko tartean lortu da kontsultarako akordioa eta adostasuna.

Eskerrak eman dizkie parte hartu duten guztiei. Aipamen berezia egin dio Rosa Aurkia teknikariari buru-belarri lanean aritu delako eta erloju kontra, eta batzuetan mahaiko kideen purrustadaren bat entzun behar izan duelako.

Galdeketa egin ostean Osoko bilkurak berretsiko du galdeketaren emaitza.

Birziklatze-tasa ebaluatuko duen birziklapenaren jarraipen-batzorde bat sortuko da.

Egingo diren bi galdera zehatzak irakurri ditu.

Laister prozedurak eskatzen dituen lan guztiak martxan jarriko dira.

Ezenarro jn

Esan du euskarazko bertsioan galderak ez daudela ondo idatzita edo jasota. Zuzendu beharko dira.

Helburua sistema hobereana aukeratzea dela esan du, baina birziklapena bermatuz. Beraiek beti egon dira galdeketaren eta partaidetza prozesuaren alde 2015eko urriko osoko bilkuran horren aurka bozkatu izana leporatu bazieten ere.

Horren alde daudela erakutsi dute. Garrantzitsua iruditzen zaio %75eko birziklatze-tasa lortzea. Horrekin batera, esan du, batzuetan, borondatezko sistemek ez dutela emaitzarik ematen. Ez du uste Atez atekoa baztertu denik, baina dauden irtenbide teknikoak daudenak dira, eta atez ateko sistemak sistema misto baterantzko bilakaera izan dezakeela uste dute. Sistemak ez du hainbesterainoko garrantzirik, garrantzitsuena da adostutako eta aukeratutako sistemak birziklatze-tasa ona lortzea.

Sukia and

Sukia andreak adierazi du harro sentitzen dela galdeketa egingo delako eta guztion lanaren emaitza delako. Bere burua aberastu duela adierazi du. Harro dago alde guztietako herritarrek batera lan egin dutelako.

Dubreuil jn

Dubreuil jaunak ere bat egin du Sukia andreak esandakoarekin, hau da, emaitza oso aberasgarria izan da, baina batzuetan gogorra izan dela aitortzen du.

De Juan jn

Bertaratutako pertsona batek interbentzioa egin du, De Juan jaunak, eta esan du referendum-tranpa bat dela, eta berak ez duela parte hartuko. Bideraezina da soluzioa, eta Ingurumen Teknikari gisa pentsatzen du birziklapena ez dela gastua, baizik eta inbertsioa dela.

Gonzalen jn

IRABAZIko ordezkariak, hondakinen mahaian parte hartzeko egin zaien gonbidapena eskertu du.

Bere ustez galdeketa babesten duten bi gertaera kontuan izan behar dira:

- 1) Ordiziarren artean birziklatze-tasa altua zegoen.
- 2) Azkeneko hauteskundeetako emaitzek erakutsi zuten herritarrek galdeketa egitea nahi zutela.

Pozik dago herriari hitza eman zaiolako eta gehiago birziklatzeko helburua finkatu delako.

Ezenarro jn

Esan du De Juan jaunak esandako puntu askorekin bat egiten duela. Bere ustez pertsona batzuek Atez atekoaren aurka egin dute baina galdeketa egin ondoren herritarrek ondorioak hobeto ezagutuko dituztela uste du. Birziklatze-tasaren jarraipena beharrezkoa izango da eta beraiek han egongo dira.

Moreno and

Uste du gakoa konpromisoa dela, eta ez sistema ikuskatu (auditatu) daitekeen ala ez, honela erantzun dio De Juan jaunari.

Osoko bilkurara etorri diren herritar batzuen artean eztabaida sortu da.

Bozketa

Aldekoak: 13(EAJ/PNV 5,Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak-Socialistas vascos 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



18.- Galde-erreguak

De Juan jaunak publikotik adierazi du berak Suhiltzaile Boluntarioen Elkartean parte hartu duela eta elkarte hau desagertu egingo dela salatu du. Tamalgarria da herritarren zerbitzura 147 urtean zehar lanean aritu den boluntarioen elkarte bat besterik gabe desagertzea.

.....

Aurrekontuetan parte hartzea. Intsausti andreak esan du gaiaz galdetzen duten bakoitzean bilera bat egingo dela erantzun dietela beti. Hala ere, udal aldizkarian argitaratu da aurrekontu parte-hartzaileetarako bilerak abenduan hasi zirela eta beraiei ez diete horren berri eman. Oraindik ez dakite zein inbertsio aurreikusten den. Informazioa falta dela salatzen dute.

Partaidetza prozesuaren emaitzak ezagutu nahi dituzte beraien emendakinak edo ekarpenak aurkezten dituztenerako.

Iturrioz jaunak, Ogasun zinegotziak, adierazi du oraindik ixteko datu batzuk falta direla, Kontuhartzaileak eman beharreko datu batzuk, eta horiek izan bezain laister bidaliko dizkietela.

Alkate jaunak esan du legealdi berriarekin batera zinegotzi berriak sartu direla eta Administrazioaren funtzionamendua ezagutu behar dutela. Denbora behar dute.

Horrez gain, aurreko asteleheneko Gobernu Batzordean bileren berri eman zela esan du. Eguren jauna ez zen azaldu.

Intsausti andreak esan du salatzen duena informazio falta dela.

.....

Eguren jaunak udal aldizkariko esaldi batzuk aipatu ditu eta bere ustez berak esaten duena berresten dute.

Fernandez andreak erantzun dio esanez itzulpen-kontu bat izan dela. Gaztelerazkoan ondo jasota dago.

Eguren jaunak esan du beraiek lan egiten dutela baina ez dela kontuan izaten beraien lana. Gutxietsiak sentitzen dira.

.....

Eguren jaunak galdetu du ea AOTren bat kontratatuko den. Alkate jaunak erantzun dio esanez ez dagoela horrelakorik.

.....

Eguren jaunak TAOren kontrolerako langilea hartzeko bere garaian egin zen hautaketa prozesuaren deialdiaz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez, bere iritziz, lanpostuaren beharra hobeto aztertzea komeni dela eta bere asmoa deialdia indarrik gabe uztea dela, behar hori baloratzen den arte.

.....

Maiza andreak adierazi du Euskararen Ordenantza ez dela betetzen eta batzuetan Udalak berak urratzen dituela bere arauak. Gaia sakonki aztertu beharko da.

.....

Maiza andreak uste du eztabaidatzeko osoko bilkuran aztertzen diren mozioak aldeztatik aztertu behar direla dagokion Aholku Batzordean.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez beraiek ere zuzenean eraman izan dituztela mozioak Aholku Batzordean aztertu gabe; eta gainera, egiten dela kontuan izan gabe, eta horrela egiteko asmoa izanik, bere ustez, alderdi politikoek legitimitate osoa dute egokiak iruditzen zaizkien mozioak zuzenean osoko bilkurara eramateko.

.....

Ezenarro jauna. Bi puntu zehatzi buruz galdetu du, Buztuntzako pasealekuari buruz eta konpostajeari buruz.

Alkate jaunak erantzun dio esanez Buztuntza pasealekurako, 300.000 euroko proiekturako, 12.000 euroko diru-laguntza eman zela.

Adierazi du gai hau ez dela plazaratu auzoetako bileretan. Baina espaloiak egoera txarrean daudela plazaratu da.

Ezenarro jaunak esan dio ez dela soilik bidegorriaren proiektuaz ari, baizik eta zerbait zabalagoaz ari dela.

Moreno andreak konpostajearen galderari erantzun dio.

.....

Ezenarro jaunak Herri Antzokiko eta Oiangurengo proiektuei buruz galdetu du. Bere ustez proiektu garrantzitsuak dira eta horien alde lan egin behar da. Alkate jaunak erantzun dio.

.....

Fernandez andreak Eguren jaunari galdetu dio ea noiz eskuratuko dituzten 2015eko abenduaren 17ko osoko bilkuran grabatutako irudiak.

Eguren jaunak erantzun dio ez dagoela grabatutako irudirik arazo teknikoak izan zituztelako.

.....

Sukia andreak larunbatean Donostian eta Bilbon erbesteratu eta errefuixtuen alde egingo den martxara joateko gonbidapena egin du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.